



Osasuna Politika Guztietan

BATZORDE TEKNIKOA



Txosten
sektoriala **2018**

Emakunde

2019ko maiatzaren 28an



Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

Emakunderen jarduera guztiek gizon-emakumeen arteko desberdintasunen ezabatzean aurrera egitea bilatzen dute; neurri horreko osasunaren determinatzaile nagusietako batean eragiten du, baina epe ertain-luzeko zeharkako neurriak dira, alegia, herritarren artean duten eragina ez da berehalakoa. Politika sektorialak gauzatzen dituztenek “eragiten” dute inpaktu zuzena.

4/2005 Legeak eta Berdintasunerako VII. Planak ezartzen dute gobernuko departamendu guztiak behartuta daudela euren politikak gizon-emakumeengan eragin dezaketen inpaktu diferentziala kontuan hartuta eta berdintasun helburuekin planifikatzera. Horregatik, departamendu guztiei dagokie sektore-esparru bakoitzean gizon-emakumeen arteko desberdintasuna ezabatzea eta, hortaz, pertsonen osasunean desberdintasunak ezartzen dituen determinatzaile garrantzitsu hori ezabatzen laguntzea.

Hainbat koordinazio-neurri ezartzen dira departamendu eta bestelako erakundeekin, politikak genero ikuspegitik egin daitezen: osasuna, enplegua, gizarte politikak, etxebizitza... Eta desberdintasunak antzematen eta horiek ezabatzeko neurriak ezartzen laguntzen dute.

Emakumeen kontrako indarkeriaren inguruko koordinazioa da Emakunderen lan-esparru funtsezkoetako bat.

Jarraian, osasunaren esparruko hainbat jarduerak aipatuko ditugu:

Osalanekiko lankidetzak, lankidetzak-hitzarmen baten bitartez, laneko osasunean genero ikuspegia sartzeko. Lantalde bat sortu da eta laneko osasunaren inguruko materialak eta jardunaldiak garatzen kolaboratu da, jarraian adierazitakoa, besteak beste.

Lan Ikuskaritzarekiko lankidetzak, lankidetzak-hitzarmen baten bitartez, diskriminazioak antzemateko eta enpresetan berdintasun politikak indartzeko. Arrisku muskulu-eskeletiko eta sexu-jazarpenaren nahiz sexuan oinarritutako

jazarpenaren prebentziorako hurbilketa jardunaldia egin da Osalanekin eta Lan Ikuskaritzarekin elkarlanean.

- Jardunaldiaren ordu-kopurua: 5.
- Parte hartu duten gizon-emakumeak: 146 emakume eta 37 gizon.

Bi goiz erabili dira berdintasunerako kolaboratzaile diren erakundeentzako eta aholkularitza-enpresa homologatuentzako **sexu-jazarpenari eta sexuagatiko jazarpenari buruzko prestakuntza** bat egiteko, eta Laneko Ikuskaritzako eta Osalaneko langileak ere izan dira bertan. *Enpresetan sexu-jazarpena edo sexuagatiko jazarpena dagoenean esku-hartzea. Erronkak eta proposamenak* izan du izenburu.

- Jardunaldiaren ordu-kopurua: 9 h 30´.
- Parte hartu duten gizon-emakumeak: 64 emakume eta 10 gizon.

Osasunari buruzko urteroko jardunaldia, generoaren ikuspegitik, Emakumeen Osasunaren Aldeko Nazioarteko Egunean. 2018an *Depresiotik suspertzea: generoa, gorputza eta aldaketa-gaitasuna* izan da jardunaldiaren izenburua, eta Maria Zapata Hidalgok eskaini du.

- Nº de horas de la jornada 1 h 30´.
- Nº de mujeres y nº de hombres asistentes: 27 mujeres y 6 hombres.

Aktibatuko dugu protokoloa? Sexu jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren antzematea, agerpenak eta eragina jardunaldia egin da, Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako Entitate Publikoen Sarerako. Jardunaldia 5 ordukoa izan da eta hainbat entitate publikotako ordezkari diren 13 emakumek eta 3 gizonek hartu dute parte.

2018an **sexu jazarpenaren eta sexuagatiko protokoloen aplikazioari buruzko 36 aholkularitza** egin dira **enpresa eta erakunde pribatuentzat**.

EAEko 42 ikastetxek boluntarioki garatu dute Berdintasunerako, errespeturako eta indarkeria-ezarako **Nahiko! hezkidetza programa**.

- Parte hartu duten ikastetxeen kopurua: 2015/2017: 36; 2017/2019: 42.
- Nahasitako ikasleak: 2015/2017: 2.780; 2017/2019: 6.069.
- Nahasitako irakasleak: 2017/2019: 301.

Gazteentzako **Beldur Barik programa**. Gazteen artean indarkeria sexista prebenitzeko **BELDUR BARIK kanpaina** bultzatu eta kudeatu da, horretarako foru aldundi bakoitzarekin lankidetzaz hitzarmen bat sinatuta. Beldur Barik lehiaketaren 2018ko edizioan 61 udalerrik eta 2.113 gaztek hartu dute parte. Azken topaketan (Beldur Barik Topaketa) 231 gaztek hartu dute parte. Webguneak 325.085 bisita izan ditu, gainera (emakumeak: %46; gizonak: %54).

Gizonduz prestakuntza eta sentsibilizazio programarekin jarraitu da, bereziki gizonei zuzendutako prestakuntza-ekintzekin, generoak euren osasunean duen eraginaz jabetzeko edukiak barne hartuta. 2018an, 1.153 lagunek hartu dute parte prestakuntza-ekintza horietan, 632 gizonek eta 451 emakumek. Gainerakoak ez binario gisa identifikatu dira edo ez dira identifikatu.

Gazteak Berdintasunean 2.0 proiektuak nerabeak eta gazteak, eta bereziki gizonak, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren eta emakumeen indarkeriaren aurka kontzientziatzea eta inplikatzeko bilatzen du, azken teknologietan oinarritutako hezkuntza-tresnak erabilita. 2018an, proiektuaren eta horren osagaien testatzea egin da 6 ikastetxetan eta udalerrri bateko kale-jardueran. Ondorengo ikastetxe hauek hartu dute parte prozesu horretan: Lanbide Heziketako Bilboko Margotu Ikastetxea, Lanbide Heziketako Bilboko San Luis Zentroa eta Lasarteko ikastola. Irakasleentzako ikastaroetan 6 emakumek eta 9 gizonak hartu dute parte. Ikasleekin egindako ikastaroetan 255 pertsonak hartu dute parte, 131 emakumek eta 128 gizonak.

Sexu erasoak eta etxeko tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundearen arteko II. Akordioaren jarraipen Batzordea koordinatu da.

Erakundearen arteko talde teknikoa koordinatu da. Aurrez egindako lanarekin jarraituz, bilera bat egin zen ekainaren 26an, eta seme-alaben arreta hobetzeko egindako lanaren berri eman duten erakundeek, euren esperientziak partekatzeko eta biktimentzat bideratutako baliabideen inguruko zailtasun eta aurrerapenei buruz eztabaidatzeko. Era berean, Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundearen ordezkari den EDEKArekin batera desgaitasunaren arloan egiten ari den dokumentuaren zirriborroa aurkeztu zuen Emakundeek, emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren emakume desgaituak artatzen dituzten Erakundearen arteko II. Akordioako profesionalei zuzendutakoa. Oraingo honetan, dokumentu praktiko eta arin bat egitea da helburua, dibertsitate funtzionala duten biktimen lehen arreta emateko gomendioak biltzen dituen.

Gero, urriaren 16an, bilera egin zuen erakundeen arteko talde teknikoak, eta hainbat gai eztabaidatu zituzten: Erakundeen arteko II. Akordioaren ikuskapenean eta hedapenaren lan egiteko beharra, estatuko arau-aldaketak sartzeko, talde teknikoetan egindako eta Jarraipen Batzordeak onartutako aurrerapenak eta Istanbuleko Hitzarmenera egokitzeko modua, besteak beste. Horrekin batera, emakumeen aurkako indarkeriaren lege proposamenaren inguruan egindako urratsen berri eman zuen Emakundek.

Ondorengo txosten hauek egin eta zabaldu dira:

Informazio Sistemen Taldearen-IST esparruan, (datu horiek indarkeriarik gabe bizitzeko laguntza eskatzen duten emakumeen informazio ematen dute, Euskadin indarkeria jasaten duten emakumeekiko arretaren nondik norakoak jakiteko), II. Akordioaren barruan, datuak bildu eta emakumeen aurkako indarkeriari buruzko hainbat azterketa-dokumentu egin dira. 2018an, hiru txosten argitaratu dira Emakunderen web orrian:

- *EAEEn 2017an indarkeria jasan duten emakumeei laguntzeko baliabideen irismenaren gaineko datuak. INFORMAZIOAREN ANALISIA.* Datu horiek arreta zerbitzuek betetzen duten aplikazio batekin jasotzen dira, eta indarkeriarik gabeko etxebizitza bat eskuratzeko laguntza eske joaten diren emakumeei buruzko informazioa ematen dute, Euskadin indarkeria jasaten duten emakumeekiko arretaren nondik norakoak jakiteko.
- *Genero indarkeriaren biktima diren emakumeei ematen zaien arretari buruzko baliabideen mapa, 2018.* Emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren emakumeen eskura dauden baliabide eta zerbitzuen mapa jasotzen du txosten honek. Eskaintza publikoari egiten dio erreferentzia, indarkeriaren biktima diren emakume eta adingabeen arretarako programa eta zerbitzuei barne, bai administrazioak zuzenean kudeatzen dituen, bai eta erakunde pribatuen bitartez kudeatzen direnei ere. Baliabideen Mapa Interaktiboa egiteko oinarria izango da.
- *EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu estatistikoak: analisia eta interpretazioa, 2017ko datu estatistikoak.* Azterketa-lan honen helburua da emakumeen aurkako indarkeriaren ezagutza areagotzea eta esparru horretako politikak orientatzea, ikuspegi global batetik, gaur egun sakabanatuta dagoen ezagutza piloa integratuta. Txostenean, Azterlan

eta Analisisien Dibisioak eta Ertzaintzak (Eusko Jaurlaritza, Segurtasun Saila) emandako datu kuantitatibo batzuk jasotzen dira, arazoa norainokoa den eta arazoari zer faktore lotzen zaizkion erakusteko.

Indarkeriari buruzko informazioa eta prestakuntza emateko eta horren inguruan sentsibilizatzeko eta indarkeria prebenitzeko ekimenak sustatzen dituzten erakundeentzako diru-laguntzen deialdia kudeatu da. 36 erakunde izan dira onuradunak eta 42 proiektutarako diru-laguntzak eman dira.

Hiru jardunaldi egin dira emakumeen kontrako indarkeriaren neurria, horren kausak, ondorioak eta horri aurre egiteko moduak jakinarazteko. Hogeita hamasei pertsonak hartu dute parte.

JABETUZ prestakuntza programaren 3 edizio egin dira, **berdintasunaren, indarkeriaren antzemate goiztiarraren eta indarkeriaren arretaren arloan**, indarkeriaren biktima izan diren emakumeen arretan nahasita dauden hainbat profesional-talderentzat (osasuna, gizarte lana, ertzaintza, enplegua, abokatutza, epailetza...). Guztira 273 pertsonak jaso dute prestakuntza, 243 emakumek eta 30 gizonek.

Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak artatzeko gutxieneko nazioarteko kalitate estandarrei buruzko NBEaren programaren esparruan, hainbat jardunaldi monografiko antolatu dira sektoreka. 2017ko abenduan izandako justiziaren arloko jardunaldiari jarraipena emateko, gogoetarako eta Poliziaren (63 lagunek hartu dute parte), gizarte zerbitzuen (70 lagunek hartu dute parte) eta osasun arloko jarduera-eremuen (88 lagunek hartu dute parte) ondorioak azaltzeko 3 jardunaldi antolatu dira 2018an.

Izaskun Porres Garciak egindako **Derecho a la intimidad de las víctimas de delitos de violencia de género. Derecho al anonimato de las víctimas** txostena prestatu eta maketatu da, eta 2019 hasieran argitaratzea aurreikusten da.

Bertha Gaztelumendik zuzendutako **Volar, proyecto para la reparación de mujeres que han sobrevivido a la violencia** dokumentala aurkeztu zen 2017ko Zinemaldian. Emakundek herritarrei eta elkarteei eskaini die filma, biztanleria sentsibilizatzen jarrai dezaten. Dokumentaleko emakume protagonistekiko

harremana ahalbidetu da udal eta elkarte artean, proiektzioen ondoren emakume horiek foro-eztabaidetan egoteko, euren esperientzien inguruko gogoeta egiteko eta herritarrak aldaketa sozialerako sentibilizatzen saiatzeko. 2018an 297 proiektzio-eskaera egin dira hainbat lekutatik (elkarteak, erakundeak eta abar). Askotan, proiektzio bat baino gehiago dakartzate eskaerek.

Hainbat zinema-jaialditan ere aurkeztu dute, eta oso harrera ona izan du. Prozesuari jarraipena emateko, bilerak egin dira bizirik iraun duten/biktima diren emakumeen elkarteekin, baterako lan eta gogoeta sare bat sortzeko aukera ikusteko. Beste bultzada baten zain dago prozesua une honetan.

Emakumeen eta nesken sexu-esplotaziorako erabilera.- Bi diru-laguntza nominatibo izapidetu eta kudeatu zaizkie giza salerosketaren biktima diren emakumeei erantzuna ematen dieten bi erakunderi: Askabide eta Oblaten Kongregazioari, "Ireki Leihoak" proiektua garatzeko.

Gainera, osoko bilkura egin zuen emakumeen eta nesken sexu-esplotazioa xede duengizakien salerosketari buruzko mahaiak, maiatzaren 11n. Emakundekez ezik, Segurtasun Sailak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Familia Politika eta Aniztasun Zuzendaritzak, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Saileko Justizia Zuzendaritzak, Justizia Auzitegi Nagusiko Fiskaltza Nagusiak, hiru foru aldundietako adingabeen zerbitzuek, Gobernuaren Ordezkaritzako ordezkariak, Ertzaintzak, segurtasun indar eta kidegoek, eta gobernuz kanpoko hamaika erakundek ere hartzen dute parte bertan.

Gizakiensalerosketari buruzko mahaiaren ekintza-planaren barruan, prestakuntza proposamenak garatu dira maiatzean eta abenduan. Horrekin batera, Giza salerosketaren inguruko EAE mailako diagnostiko bat egiteko asmoari buruzko informazioa eman da. Deustuko Unibertsitateak eta Comillaseko Unibertsitateko Carmen Meneses doktoreak egingo dute diagnostikoa, 2018rako Ekintza Planaren barruan, Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkion eta erkidegoko, estatuko eta nazioarteko araudietan bildutako lehentasun, helburu eta neurriekin, bat etorriz.

2019RAKO AURREIKUSITAKO EKINTZAK

- Sexu jazarpenaren aurkako eta sexuagatiko protokoloa eguneratzea eta enpresa zein sindikatu elkarteen artean zabaltzea.
- Alderdi soziala bultzatzea EGM prebenitzeko planaren esparruan.
- Sexu-esplotazioa xede duen gizakien salerosketaren biktimak eta horien seme-alaben premiazko arretarako bizitegi espezifiko bat abian jartzea.
- Euskadin sexu-esplotazioa xede duen gizakien salerosketaren diagnostikoaren emaitza aurkeztea.
- Izaskun Porres Garciaren Derecho a la intimidad de las víctimas de delitos de violencia de género. Derecho al anonimato de las víctimas azterketa argitaratzea.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2018 Legea aldatzeko prozesua bultzatzen eta koordinatzen jarraitu. Horretarako, 4/2005 Legea aldatzeko Lege aurreproiektuaren zirriborroaren kontsulta publikoa egiteko aldia jarri da abian. Aldaketa horrek berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako “politika eta herri itun handi bat” ahalbidetzea du helburu, politika hori indartuta eta testuinguru sozial eta normatibo berriak ekarritako behar eta erronka berrietara egokituta; hala, EAEko ordenamendu juridikoa Europako Kontseiluak 2011n onartu eta Espainiako estatuan 2014an indarrean sartutako Istanbulleko Hitzarmenera egokitzeko betebeharra azpimarratu behar da.